

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Datorren **urtarrilaren 14ean** izango da Artezkaritza- Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Jangela zerbitzua

Jangelako erabiltzaileek urtarilean honako [menua](#) izango dute. Menu bereziak [hemen](#) ikusi ditzakezue.



DBH4ko ikasleek antolatutako zozketa:

DBH4ko ikasleek ikasbidaia finantzatzeko egindako zozketaren zenbaki sarituak Udarregi Ikastolaren webgunean dituzue eskuragarri. Hemen [esteka](#). Eskerrik asko lagundu diguzuen guztioi!



Kafe tertulia

Altxa burua Usurbil taldeak, kafe tertulia antolatu du Potxoenean urtarrilaren 21ean arratsaldeko 18:00etan. [Hormairudian](#) zeren inguruan hitz egingo den ikusi dezakezue.



HAUR HEZKUNTZA

Baso eskola

Hauek dira baso eskolako lehenengo saioak:

HH5: Urtarrilaren 14ean

HH4: Urtarrilaren 16ean



Material-kobrantza

Urtarrilaren 16an, hileko erreziboarekin batera, HHko ikasleei 2025/26 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **40 €** izango da.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteerak

Datorren astean LH-ko ikasleak Txuri Urdin izotz-jauregira egingo dute irteera, izotz gaineko irristaketa lantzerako.

Urtarrilak 13, asteartea, LH4ko ikasleak

Urtarrilak 14, asteazkena, LH6ko ikasleak

Urtarrilak 15, osteguna, LH5ko ikasleak

Urtarrilak 23, ostirala, LH3eko ikasleak

Eraman beharreko materiala:

- Eskularruak
- Izotz pistan ibiltzeko arropa egokia.
- Aldatzeko arropa

Ikasleek, beti bezala, 9etarako etorri beharko dute gelara eta 12:30erako bueltan izango dira.



BIGARREN HEZKUNTZA

Ordutegi aldaketak

Ikasketa burutzan aldaketa batzuk direla eta, ordutegiaren berrantolaketa bat egiteko beharra suertatu da eta **urtarrilaren 12tik aurrera ikasleek ordutegi berria izango dute**. Gaurko tutoretza orduan banatuko zaie ordutegi berria eta beharrezko informazioa emango. Barka eragozpenak.

